

**ELA, LAB, CCOO, SATSE, STEILAS eta ESK sindikatuek deituta enplegu publikoa sortu eta behin behineko langileen kontsolidazioa galdegiteko milaka langilek hartu dute parte lan zentruetan antolatutako kontzentrazioetan**

**Apirilak 22ko greba babestu eta antolatuko ditugun mobilizazioetan parte hartzera animatzen ditugu langileak ardura daukaten agintari eta alderdi politikoei irtenbide egoki bat eskatzeko**

Pasa den martxoak 30ean egin bezala, zerbitzu publikoen defentsan, enplegu publikoa sortu eta behin behineko langileen kontsolidazioa galdegiteko, elkarretaratzeak gauzatu dituzte gaur ere sektore publikoko milaka langilek beraien lantokietan. Gaurkoan, martxoak 30an elkarretaratzeak gauzatu zituzten sektore desberdinetako lan zentruetako langileei **beste lantoki ugaritako ehundaka langile batu zaizkie** gainera. **Horrela:**

- **EAEko hiru hiriburu**etako **udaletxeetan**, Bilbo, Gasteiz eta Donostin, ehundaka langilek babestutako kontzentrazioak errepikatu dira gaur ere. Baita hiru lurraldetako beste hainbat udaletxetan ere, handienen artean Gipuzkoako Orereta, Irún edo Eibar; Bizkaiko Durango, Gernika, Balmaseda, Getxo edo Galdakao; eta Arabako Laudio. Gaurkoan elkarretaratzea gauzatzera animatu diren udaletxe berrien artean daude Pasaia, Usurbil, Arrasate, Azpeitia edo Zarautz Gipuzkoan; Zamudio Bizkaian edo Agurain Araban.
- Gipuzkoako **Foru aldundian**, Bizkaiko IFASen edota Arabako IFBSko elkarretaratzeei Bizkaiko foru Jauregian egindakoa gehitu zaie.
- **Administrazio Orokorreko** hiru hiriburuetako Eusko Jaurlaritzako egoitza aurretan, zein Lanbideko zerbitzu zentraletan ere elkartu dira bertako langileek. Osalaneko langileek ere elkarretaratzea egin dute.
- **Osakidetzan** 3 lurraldetako ospitale eta osasun zentru nagusienetan egin dira elkarretaratzeak. Besteak beste Basurto eta Gurutzetako ospitaleak eta Zaballa, Areilza edo Repelegako osasun zentroak Bizkaian; Donostia eta Zumarragako ospitalea eta Eibar, Azpeiti edo Dunboako osasun zentroak Gipuzkoan; edota Txagorritxuko ospitalea eta Olaguibel, Salburua, Laudio edo Olarizuko osasun zentroak Araban.
- **Hezkuntzan**, Elkarretaratze jendetsuak gauzatu dira ikastetxetan; besteak beste, Arabako Salburua, Adurtza, Idarte, Toki Eder, Lakuabizkarra edo Heziketa Bereziko Gorbeialde; Herrera ikastetxea, EAGI Lanbide Heziketa edo Zuhaitzi Gipuzkoan zein Gabriel Aresti, Mujika eskola, Durangoko Fray Juan de Zumarraga, Gorlizko eskola edo Burdinbarra Bizkaian. EHUKo hiru kanpus nagusienetan ere ehundaka langile elkartu dira, eta Haurreskoletako langileak ere ekimenera batu dira, besteak beste Arabako Izarra haurreskolan, eta Bizkaiko Basurtoko eta Gurutzetako haurreskoletan. Hezkuntzako sukaldetako langileak ere elkarretaratzeak gauzatu dituzte, besteak beste Unkina- Usansoloko eta Gabriel Arestiko sukaldariak.
- **Garraio publikoari** dagokionez, Metro eta Eusko treneko langileel elkarretaratzeak egin dituzte.
- **Komunikabide publikoen** kasuan, EITBko Miramón eta Bilboko zentruetako langileek ere ekimena babestu dute elkarretaratzeak gauzatuz.

Eusko Jaurlaritzak berak onartu bezala Estatu Espainiarreko eta Europako behin behinekotasun maila handiena daukagu gure sektore publikoan. %40tik gorako behin behinekotasuna ez da salbuespena, baizik eta administrazio, sektore eta eremu guztietan sistematikoki, modu orokortu batean eta kasu askotan iruzurrean errepikatzen den errealitatea.

Zerbitzu publikoen ahultzea eta langile publikoen prekarizazioa dakarten enplegu politika orokortu hauek, azpikontratazio eta pribatizaziorako aurretiazko pausu gisa soilik uler daitezke. Gure agintariak Zerbitzu publikoekin negozioa egiteko erabaki politikoa hartu eta horretara bideratutako neurriak sustatzen dituzte beraz.

Egoera honi irtenbide egoki bat emateko ardura daukaten agintari zein alderdi politikoei egoerak eskatzen duen erantzuna emateko, enplegu publikoa sortzeko eta behin behineko langileak zein lanpostuak kontsolidatzeko neurriak har ditzatela exijitzeko Apirilak 22ko Greban eta greba eguneko mobilizazioetan parte hartzera animatzen ditugu EAEko sektore publikoko langile guztiak beraz. Apirilak 22an manifestazioak antolatuko ditugu EAEko 3 hiriburutan goizeko 11.30etan.